berezia
txintxarri
828. zk. • 2009-12-21 • www.txintxarri.info • LASARTE-ORIA





# 2009ko gabonak

EGUBERRI JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!

ASEGURUAK Ges

Kalitatezko zerbitzua da gure lanaren arrazoia

- Etxeko aseguruak
- Kotxeak
- Dendak
- Istripuak
- Erretiroak
- Enpresak
- Bizitza-aseguruak...

Pablo Mutiozabal kalea 2 • Tel.: 943 365899/943 368575 • cristina_arteaga@ges.es • LASARTE-ORIA


Okela
HARATEGIA
aterpea
lasarte/oria
Ondo pasa
Gabon jaietan!
Hipodromo etorbidea 8 • Tel.: 943 361885
Lasarte-Oria
Kale Nagusia 41 • Tel.: 943 363912
Lasarte-Oria
CARNICERIA
Okela HARATEGIA Okela
HARATEGIA


ETXARRI DIGITAL
DIGITAL
943361484
Nagusia 17 LASARTE- ORIA
KIOSKO DIGITALA
Gabon zoriontsuak
opa dizkizuegu,
lagunarte ederrean!
Errebelatu DIGITALA ORDU ERDIAN
KARRETEEN errebelatua ORDU BETEAN
EZKONTZETAKO erreportajeak
ESTUDIOKO erreportajeak
makina DIGITALAK
30X90 neurrirainoko ANPLIAZIO DIGITALAK
GEURE MARKOAK JARTZEN DITUGU
ERREBELATU DIGITALEKO MAKINA BERRIA

# AURKIBIDEA


4-5 Martin Berasategi: Michelin izarrak Lasarte-Oria, Bartzelona eta Tenerifeko jatetxetan; Jatetxe berria Shangain.

6 Gabonetarako herriko sukaldarien gomendioak

7-11 Lasarte-oriarrak 2009an
· Patxi Etxeberria
· Jon Lasa
· Gotzon Huegun
· Jokin Aierragarai
· Beltzak Rugbi taldea
· Iñigo Peña

12-13 Jantzi tradizionalak

15 Iñigo Artolaren altxorrak

16-18 Bego Bergara
Gabonetan kantuan biltzen duten sosen bidetik, Nikaraguara bisita

20 Lasarte Orian ikusgai dauden Gabonetako jaiotzak

21 Jolastu euskaraz
Jostailuak erosteko gomendioak

22-25 2009ko Asteburu Multimusikala

27-28 Agenda,
egun hauetako egitaraua

29 Zorion agur eta oharrak

30 Olentzerorentzako gutuna



Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak

Lasarte-Oriako Udala
**Euskarako Batzordea**

GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua

EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

**Argitaratzailea:** Ttakun Kultur Elkartea, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • **Legezko gordailua:** SS513/93 • **ISSN:** 1134-0053 • **Inprimategia:** Zeroa Multimedia, S.A.
**Aleak zenbakiko:** 7.700 • **Erredakzioa:** txintxarri@ttakun.com • **Publizitatea:** publizitatea@ttakun.com • **Administrazioa eta banaketa:** administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.



**Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.**




# Sei *Michelin Izar* ditu eta jatetxea ireki du Txinan

▌Martin Berasategi sukaldariarentzat urte benetan berezia izan da 2009a

▌Shangai hiri txinarrean *Martin* jatetxe berria zabaldu zuen irailaren 28an

▌Tenerifeko *MBk* lehen izarra jaso du, Bartzelonako *Lasartek* bigarrena



**Urte borobila izan da Martin Berasategirentzat 2009a: batetik bere ametsetako bat bete eta Txinan, Shangai hirian, *Martin* jatetxea ireki zuen irailaren 28an. Bestetik beste bi izar berri dauzka Michelin gidan. Tenerifeko Abama Golf & Spa Resort hoteleko *M.B.* jatetxeari lehen izarra eman diote gida honetan eta Bartzelonako Condes hoteleko *Lasarte* jatetxeak bigarrena eskuratu du. Bi jatetxe hauetako aholkularia da Martin Berasategi.**

**Jon ALTUNA**

Sei izar dauzkate 2009tik Michelin gidan Martin Berasategi sukaldariaren jatetxeek. 1993tik Lasarte-Orian zabalik duen jatetxeak lehendik, hain juxtu 2001etik, zeuzkan hiru izarrei eutsi die, Bartzelonakoak bigarrena eskuratu du eta Tenerifekoak lehenengoa aurten. Zailena orain dator Martin Berasategiren ustez "Michelin izarrak eskuratzea bezain zaila edo zailagoa da egunerokoan izarrei eustea", eta atsekabez hartuko luke izarren baten galera. Baina momentuz pozteko arrazoiak besterik ez ditu.

"Poz pozik nago eta nirekin lanean ari direnetaz harro" esan du eta lanean segituko duela ere bai: "Nire esku dagoen guztia egingo dut izarrik ez galtzeko, eta ahal dudan guztia egitea, laburbilduz, orain arte egin dudana egitea da, hau da, buru belarri lana egin sutan daukadan onena jarriaz".

### Talde lana

Martin berak aitortzen du talde ikusgarria duela ondoan, ondo prestatua, puntu puntuan dagoena eta sukaldean berak besteko irrika, sua eta diziplina jartzen dutela taldeko sukaldariek.

Txinan ere jatetxea ireki du aurten. Maxime Fantone eta Yago Marquez aspalditik Martin Berasategiren taldean aritutako sukaldariak arduratuko dira Shangaiko *Restaurant Martin* jatetxeaz. Villa Rouge etxe kolonialean dago, Xujiahuiko parkearen bihotzean.

Irailaren 28an ireki zuten, Txinako dragoi eta bertako danborren burrunbarekin. Shangai hirian gertakari garrantzitsua izan zen eta 350 lagunetik gora izan ziren irekiera ekitaldian.

Martin Berasategi izan da, hemengo lehen lerroko sukaldarien artean, Txinara joateko pausua eman duen lehena. Martin Berasategik berak bere blogean aitortu du Shangaiko proiektua hasi zenean erotzat jotzen zutela, baina "azkenik ametsa egi bihurtu da". Martinek berak jakinarazi duenez, urtean birritan Txinara joateko asmoa du, baina bideokonferentziaren bidez Lasarten sortzen dituen plater berrien berri astero emango die Shangain izango diren Maxime Fantone eta Yago Marquez sukaldari buruei.



> *"Nire esku dagoen guztia egingo dut izarrik ez galtzeko, hau da, buru belarri lan egin sutan daukadan onena jarriz"*








Shangaiko karta aukeratzeko izan dituzte buruhausteak: Lasarten landu eta behin eta berriz gainbegiratu zuten eta gero jada Shangain hango produktuetara egokitu dute, ahalik eta emaitza bikainena lortzeko batez ere Txinako berdura, okela eta arrainarekin jokatuz.

**Mundu osoko jakiak**

Japongo ostrak, Australiako arkumea edota Txinako txerrikumea daude besteak beste *Martin*-eko kartan. Lasarte-Oriako jatetxeko plater batzuen funtsa edo ezaugarri nagusiak mantentzen dituzte, baina bertako ñabardurekin.

Martin berak azaldu duenez, kontu handia izan dute plater hauek txinarren gustuetara egokitzerakoan: hemengo ezaugarriei eutsi die oro har, "gure gastronomia, ikasteko gogoz eta gauza berriei zabalik dagoen herri bati erakutsiz".

"La Villa Rouge" kolonial estiloko hiru pisuko etxea da, 1921ean eraikia. Beheko solairuan taberna jarri dute bere terrazarekin; egunero zuzeneko musika daukate eta goizaldeko ordu biak arte da zabalik. Jangela nagusia bigarren solairuan izango da eta beste txikiago batzuk bigarren eta hirugarrenean. 15 sukaldari baino gehiago ari dira lanean. •

# Ostra, sagarrarekin, berro eta rukola klorofilarekin, lemon grass eta mihilu kremarekin eta oxalis belarrarekin

Txinako Martin Jatetxean eskaintzen den plateretako bat da ondorengoa: Ostra, sagarrarekin; berro, eta rukola klorofilarekin; lemon grass eta mihilu kremarekin eta oxalis azetosella belarrarekin. Hona Martin Berasategiren jatetxetik bidali diguten errezeta.

**Osagaiak**

Berro, rukola eta muskuilu gelatina egiteko:

Klorofila likido eta muskuilu ur arinduaren arteko nahasketaren litro bakoitzeko 1,5 gramo agar-agar izeneko alga gelatina.

Klorofila likidoa egiteko:
- -50 gramo berro
- -50 gramo rukola
- -200 gramo egosten erabilitako ura

Muskuilu ur arindua egiteko:
- -75 gramo gurin
- -6 tipulatx
- -2 tipula
- -Porruaren berde apur bat ezkaia eta apio zotza
- -750 gramo ardo zuri, gatza eta piperbeltza
- -3 kilo muskuilu

Erabiliko ez ditugun muskuiluak beste zerbaitekin jateko utziko ditugu.

Raifort citronnelle mamia egiteko:
- -220 gramo mihilu (hinojo) erraboila
- -150 gramo tipulin
- -6,5 gramo raifort (errefau mina)
- -50 gramo citronelle edo limoi belarra
- -8 gramo baratxuri edo berakatz
- -200 gramo mamia edo gatzatua
- -20 gramo oliba olioa
- -Gatza eta piperbeltza

Ostra gelatina egiteko
- -Ostra zabaltzen erabilitako uraren 250 gramo
- -Arrain buztanak
- -10 gramo perrexil oso ondo txikitua.

Klorofila likidoa egiteko:

Belarrak egosi minutu batean, irabiagailu elektrikoan txikitu gutxi gorabehera hiru minutuz, likidotu eta iragazi

**Prestaketa**

Muskuilu ura

Tipula, tipulatxa, porruaren hosto berdeak, ezkaia eta apio zotza gurinean gozatu, bost bat minutuan. Ardo zuria gehitu, eta gutxi gorabehera bost minutuz egosi baina, ez dezala kolorerik hartu. Piper beltz apur bat jarri muskuiluei eta hauek ere ontzian jarri, hau tapatu eta beste hiru minututan egosten utzi. Ondoren ontzia sutatik atera eta beste hiru minututan utzi kanpoan tapa jarrita. Behin hozten denean, muskuiluen haragia beste zerbaitetan erabiltzeko gorde eta ura, aldiz, muskuilu zukua egiteko utzi.

Arintzeko, ur horri koipea kendu eta zuringoa gehituko zaio, hau da muskuilu ur litro bakoitzeko 150 gramo zuringo nahastuko dira.

Raifort mamia

Mihilua, baratzuria, tipulina eta citronelleak brunoise erara moztu (1-2 mmko dadotan). Oliba oliotan gozatu dena pare bat minututan, kolorerik hartzen utzi gabe. Ondoren mamiarekin busti eta 20 minutuan egosten utzi. Komeni da kristalezko tapa duen eta itsasten ez den eltze edo lapikoa erabiltzea. Ondoren dena irabiagailu elektrikoan txikitu eta fin-fin pasatu edo iragazi. Mihilu eta Citronelle zuntzak kentzeko likidotu egin beharko da.

Ostren gelatina

Ostrak zabaltzeko erabili dugun ura epeldu, 40 graduko tenperaturatik pasa gabe. Ur hotzetan eduki ditugun arrain buztanak itsasoko ur epelarekin elkartu eta hozten utzi. Gelatina bihurtzen hasten denean perrexila gehitu.

**Amaierako aurkezpena**

Plater sakon batean ostren gelatina jarri oinarri gisara eta bere gainean, luzetara erdibitutako ostrak.

Albotan sagar makuluak jarri eta tarteko hutsunean raifort-citronelle mamia. Oxalis belarrekin dekoratu eta azken orduan, sobran zen eta gorde dugun ostra gelatinarekin busti den dena.

Oharra

Raifort edo Armorantzia rustikarra, errefau klase bat da pikante edo mina. C bitamina dauka eta Europan batez ere Alsazian erabiltzen da. Raifortaren antzeko zain bat, Japongo wasabia egiteko erabiltzen da. •

*“Kontu handiz egokitu ditugu platerak hango gustuetara. Zabalak dira eta gure gastronomia erakutsiko diegu*










# Eguberrietarako errezeta errazak

Lasarte-Oriako Goiegi eta Dana-Ona jatetxeek eta Labe Goxo okindegi-gozotegiak Eguberrietarako otorduentzako proposamen ekonomiko eta errazak aurkeztu zituzten lehengo astean burutu ziren Sukaldaritza errazeko jardunaldietan. Jardunaldietan egin ziren bi errezeta, *Erromes-maskorra Neguko boilurrarekin* eta *Esnegain eta Intxaur turroia* eta proposamen berri bat, *Papillotea*, eskaintzen ditugu jarraian. Animatu, sartu sukaldean eta on egin!



## Dana-Ona jatetxeko proposamena

### Erromes-maskorra Neguko boilurrarekin

**Osagaiak 4 lagunentzat:**
- 4 Vieira
- 20 zl. oliba olioa
- 20 gr. boilurra
- Tipulin
- Tipuleta bigunak
- Koilarakada bat vermouth zuria

**Prestaketa:**
Lehendabizi erromes-maskorrak garbitu behar dira. Giharra eta korala gorde. Ontzi batean oliba olio epela eta neguko boilurra zatituta eta vermoutha nahastuko dira.

Bestetik, erromes-maskorreko giharra eta korala plantxatik pasako dira. Ondoren, aurretik prestatua zegoen olio eta neguko boilurraren nahastuko dira giharra eta korala.

Azkenik, nahasketa maskorrean jarri eta gainetik tipulin xehatua bota eta tipuleta bigun frijituekin aurkeztu.

## Juan Luis Eizmendi Goiegi jatetxeko sukaldariaren proposamena

### Papillotea

**Osagaiak 4 lagunentzat:**
- 4 zati arraina, 150 - 200 gr. inguru pertsonako
- 16 orri ziazerba osto freskoa
- Pakete bat baratxuri freskoa
- 4 orri azelga
- Tipula
- 2 Patata eder
- Gatza
- Oliba olioa
- Gurina
- Labeko papera

Arraina edozein izan daiteke: Legatza, Izokina, Muxarra, Urraburua...

Arraindegian, arrain horri xolomoak ateratzeko eskatuko dugu, hezurrik gabe eta jateko garbi gera dadin.

**Prestaketa:**
Tipula juliana finean moztu, eta oliotan gozatzen jarri. Patatak zuritu, zentimetro erdiko lodierako xerratan moztu eta tipularekin batera jarri gatz pixka batekin. Su eztian egiten utzi estalita, patatak samur-samur geratu arte.

Azelga orriaren mamia, ondo garbitu eta ariak kendu ondoren, olio eta gatz pixka bat duen uretan egosi, ondo samurtu arte.

Baratxuri freskoa, ondo garbitu eta atzazal txikiaren tamainako pusketatan egin ondoren, gurina eta gatz pixka batekin gozatu, samurtu arte, baina kolorerik hartu gabe.

Lan guzti hauek egin ondoren, papilloteak muntatu. Pertsona bakoitzarentzako bat.

Labeko papera pusketa bana hartu, 20 x 40 zm ingurukoa, eta erditik tolestura bat egin. Albal papera ere egokia izan daiteke.

Tolestura horren alde batean, jarri, 2 edo 3 xerra patata, olioa ongi xukatuta. Gainean azelga mami egosiak. Gainean baratxuri fresko konfitatua.

Hori dena ziazerba orriekin estali. Bukatzeko, arrain zatia jarri, azala beheruntz duela.

Gainetik, gatz pixka bat eta olio zorrotada bat bota.

Bukatzeko paketea itxi, ertzak ongi tolestuz, eta ez ireki-tzeko pintza batzuekin edo antzeko zerbaitekin helduz. Ahal den hermetikoen itxi behar dira paketeak, arraina egiterakoan barruko lurrunek ihes egin ez dezaten.

Horrela gordeko dira paketeak hoztgailuan jateko ordura arte.

180ºCtan berotutako labean 8 - 12 minutu beharko ditu plater honek prestatua egoteko, labearen eta sartzen diren pakete kopuruaren arabera.

Paketeak ireki gabe, zerbitzatuko dira, jale bakoitzari bat. Bakoitzak ireki dezala berea, eta jan aurretik usaindu ditzala jaki gozo hauen lurrunak.





## Labe Goxo okindegia eta gozotegiaren proposamena

### Esnegain eta Intxaur turroia

**Osagaiak:**
- 500gr. txokolate zuri estaldura
- 100ml. esnegain
- 150gr. intxaur zatitua

**Prestaketa:**
300gr txokolate maria bainuan edo mikrouhin-labean urtu (gutxiengo potentzian, txokolatea ez erretzeko). Txokolatea behin urtuta dagoela, esnegaina eta intxaurrak gehitu. Kontu handiz dena nahastu eta aurretik prestatuta duzun molde batean hustuko dugu. Hozkailuan utziko dugu, turroiak gorputza har dezan. Behin turroia gogorturik dagoela, geratzen den txokolatea urtu eta estaldura egin. Gustuaren arabera atondu.



AIZPURUA
Pinturak
IZAN EGUBERRI ZORIONTSUAK!
* Pintura plastikoak bereziki.
* Nahi duzun kolorea egingo dizugu momentuan.
Zumaburuko industrialdea
LASARTE-ORIA
Tel.: 943 362153

Serranos
igeltserotza
iturgintza
Gas-instalazioak
Berokuntza eta pintura
ONDO PASA GABON JAIETAN!
Erakusketa: Zumaburu kalea 5, atzea • Tel.: 943 366681 • LASARTE-ORIA

LASARTE AUTOESKOLA
EGUBERRI JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!
Kale Nagusia 5 (tarteko solairua) • Tel.: 943 370692 • Lasarte-Oria

## **Patxi Etxeberria**/ Bertsolaria

# 50 urteko bertso ibilbidea omendu zuten Lasarte-Oriak eta Oriok

Ttakun elkarteko Bertso Eskolak Patxi Etxeberria bertsolaria omendu zuen irailaren 27an Kultur Etxean. Besteak beste Orio jaioterriko eta Lasarte-Oriako Udalen eta bertso eskolen omen eta opariak jaso zituen 50 urte bertsotan egin dituen Etxeberriak. Ekitaldian parte hartu zuten hainbat urtetan berarekin aritutako bertsolariak, besteak beste, Andoni Egaña, Xabier Amuritza, Imanol Lazkano, Joxe Agirre, Txomin Garmendia eta Jon Azpillagak.

Gainera Orion jaio eta Lasarte-Oriara bizitzera etorri zen bertsolariaren bizitza jasotzen duen liburu mardula argitaratu du Bertso Eskolak. Xabier Lasa kazetariak egin die elkarrizketa, Patxi Etxeberria eta bere emazte Iñaxiri. Gainera, Patxiren argazki zaharrak, 50 urteko hainbat bertso eta Egaña, Agirre, Lazkano eta Garmendia bertsolarien hitzak ere jaso dira liburuan.

Lagun arteko berotasuna, esker ona, bertsoak eta beste hainbat une goxo izan ziren Patxi Etxeberriaren omenaldian. "Zoragarria izan da" esan zuen Patxi Etxeberria berak Intza elkartean bazkaldu eta gero. Izan ere, hiru parte zituen omenaldiak: San Pedro elizan meza, Kultur Etxean omenaldia eta Intza elkartean bazkaria eta hiruretan izan ziren Patxi Etxeberriak 50 urtetan egindako adiskideen bertsoak. Gainera, Bertso Eskolaren izenean Ane Labakak bertso hunkigarria eskaini zion Iñaxi Etxeberriari kultur etxean.



Arrain saltzaileak izan dira biak urte askotan eta omenaldian "Bronx-eko Pako arrantzalea" gisara aurkeztu zuten antolatzaileek, gero haren garaiko Txomin Garmendia, Imanol Lazkano, Joxe Agirre, Jon Azpillaga eta Koxme Lizaso aritu ziren bertso kantari, Unai Muñoa, Jexux Mari Irazu eta Andoni Egaña aurkezlegaijartzaileei erantzunez eta tartetan erakunde, bertso eskola eta elkarte ezberdinek txandaka omendu zuten Patxi Etxeberria.

Lasarte-Oriako Bertso Eskolak aginte makila oparitu zion Patxi Etxeberriari. Honek amaieran kantatu zuen, besteak beste "Egun honetaz ez naiz ahaztuko burua dudan bitarte" esanaz. Intza Elkartean egin zen bazkariarekin eman zitzaion amaiera omenaldiari. Han ere izan ziren bere omenezko bertsoak.

> *“ Bertso eskolak Orion jaio baina ia bizi osoa Lasarte-Orian egin duen bertsolaria omendu zuen irailaren 27an eta "Patxi Etxeberria. 50 urtez plazagizon. 1959-2009. Hizketan bezala bertsotan", liburuan jaso du bere bizitza.*

### Liburua

"Patxi Etxeberria. Hizketan bezala bertsotan. 50 urtez plazagizon. 1959-2009" liburua kaleratu du Bertso eskolak omenaldiarekin batera Udalaren laguntzarekin.

300 orrialdetan, batetik, Patxi Etxeberriaren zenbait pasadizo kontatzen dira, bestetik, Andoni Egaña, Txomin Garmendia, Joxe Lizaso eta Imanol Lazkano mintzatu dira Etxeberriari buruz eta azkenik, honen ibilbideko bertso eta argazkiak jaso dira. Guztira 400 bertso baino gehiago sartu dira bilduman, Patxik idatzitakoak edo berak eta berarekin zirenek hainbat saiotan botatakoak: Lehenengoak 1963an Hernaniko Erenotzu auzoan Txirritaren omenez kantatutakoak eta azkenak aurten San Pedrotan egindako saiokoak.




**Etxeberriak kontatzen dituen pasadizoetako batean Mitxelenak esan omen zion, “Gaur Euskal Herrian den bertsolaririk onenetakoa juzgatzen haut, baina gaur nire azpian ibili haiz” eta ateraldi hori erabili du duela gutxi Antton Olariaga marrazkilariak Zakilixuten tira barregarria asmatzeko. •**






## **Jokin Aierregarai**/ aktore eta dantzaria

# Go!azen telesailean parte hartu du



Lasarte-Oriako beste gazte askok bezala, Jokin Aierregaraik aurretik bazuen dantza eta antzerkian esperientzia, 2008ko maratoian zortzikoteko kide ere izan zen eta hainbat ordu pasatua da oholtza gainean, baina aurten Telebistara saltoa eman du. Batetik "Errazu" izeneko saioan euskarazko piropoei buruzko atal batean parte hartu zuen, Iban Garate aurkezleari piropoak nola bota behar diren erakusten ibili zen, eta bestalde, urritik aurrera telebistako programazioan den Go!azen telesaileko protagonistetako bat izan da.

Landaberriko gazteen antzerki taldeak "Grease" estreinatu zuen ekainean Lasarte-Oriako VII. Antzerki Astearen barruan, eta lan honetan egindako prestaketa ondo etorriko zitzaion Jokin Aierregarairi gero Go!azen telesailerako aktoreen aukeraketa probetarako.

12 kapituluko telesaila grabatu zuen udan Pausokak, uztaila, abuztua eta irailean, ETBk udazkenean emateko. Go!azen filmeak gaztetxoen artean izan zuen arrakasta medio, jarraipena eman diote telesail formatoan. Jokin Aierregarai Aitorren paperean ikusi dugu, abesten eta dantzatzen. Ondo moldatu da aktore lanetan ere.

Antzerki Eskolara deitu zuten Pausokako produktoreek aktoreak behar zituztela esanaz, probatan hiru lagun aurkeztu ziren eta Jokin-i paper nagusietako bat eman zioten. Bost edo sei abesti kantatu, momentuan musika batekin dantzatu eta azkenik, etxean prestatutako testu bat antzeztu behar izan zituen proban. Bi mutil aukeratu zituzten Aitorren paperako eta azkenik bien artean bera.

San Pedrotan hasi eta irailera amaierara bitartean aritu ziren lanean. 12 kapitulu grabatu dituzte 60 egunetan, beraz juxtu xamar aritu dira denboraz, baina pozik dago esperientziarekin eta errepikatuko luke. •

> *"Errazu" saioan Iban Garate aurkezleari piropoak euskaraz nola bota behar diren erakusten ibili zen Jokin Aierragarai.*

## **Gotzon Huegun**/ Eskultorea

# Suitzan saria jaso zuen



Gotzon Huegun eskultorea ez da aurten ere geldirik egon. Maiatza hasieran Errenteriko Eskulangintza Azokan salgai jarritako lanik onenari saria eman zioten eta ekainaren 9tik 20ra bitartean Suitzako Morges hiriko Eskultura simposiumean egurra landu zuten artisten artean onena izan zen. Beste hainbat lan eta enkargu ere egin ditu azpimarragarriena Italiatik ekarritako bi metroko marmol zuri pusketa handi batean "El Greco" margolariaren lan bat hiru dimentsiotan egin zuela. Hiru hilabetetan zizelkatutako lan hori panteoi batean jarri zuten azaroaren 1a, domu santu egunaren aurreko egunetan. Carrarako marmol zuri hori, Miguel Angel eskultoreak duela 500 urte erabiltzen zuen berbera, asko gustatu zaio, bere ustez, "ondo irabazita dauka fama" eta berriro erabiltzeko asmoa du herriko eskultoreak.

Errenteriako artisau azokan saria jaso zuen lana gerezi enbor baten azalean zizelkatutako









*“ Errenderiko artisauen azokako lanik onena izendatu zuten aquarium ikusgarria.*

"aquarium" ikusgarri bat izan zen. Itsas azpiko mundua irudikatzen duen zutabe koloretsuaren kalitatea eta berrikuntza saritu zuten eskulangintza azoken artean Euskal Herriko ezagunenetarikoa den Errenderiko azokan. Bertan parte hartu zuten beste 50 artisauen lanen artean berea saritzea erabaki zuten antolatzaileek. Eta ez da aurten jasotako sari bakarra izan.

Bestalde, ekainean Suitzan eskultura simposium batean parte hartu zuen mundu osoko beste 30 eskultorerekin batera Morges hirian, egurrean emakume bat zizelkatu eta handik ere sari batekin etorri zen. "Eskultura express bat egin dut hamabi egunetan" esan zigun orduan Gotzon Huegunek.

13 herrialde ezberdinetakoak ziren beste eskultoreak, eta egurra landu zuten 12 artisten artean epai mahaikoek lasarteoriarraren lana aukeratu zuten. •

## **Jon Lasa** / Musikari eta musika irakaslea

# Ttakun Saria jaso du euskal kulturaren “zerbitzariak”



Ttakun Saria emango du urtero Lasarte-Oriako Kultur elkarte honek eta aurten, estraineko aldian, 2009ko saria Jon Lasa musika irakasleak jaso zuen azaroaren 28an Txitxardin Beltxa jatetxean egin zen bazkideen afarian.

Hainbat urtetan euskal kulturaren "zerbitzari" izan dela nabarmendu zuen Ttakun Elkarteak sarituaren izena ezagutarazterakoan, hainbat urtetan herrian euskal musika eta euskal kultura zabaltzeko egindako lana nabarmenduz: "Herriari begira egin du lan, herriko ekitaldietara eraman ditu euskal musika eta herriko musikariak. Beraz herriaren zerbitzari izan da beti eta horregatik emango diogu Ttakun saria, hain zuzen, 32 urte ondoren ikastolako irakasle gisa erretiratu den urtean".

150 lagun inguru izan ziren bazkide eta adiskideen afarian. Mattin Anso eta Intza Alkain-ek aurkeztu zuten denetarik izan zuen ekitaldia: Aitor Atxegak abesti bat eskaini zion Jon Lasari atzean honen irudiak ematen ziren bitartean, Aitzol eta Aroa Lasak Mikel Laboaren abesti bat kantatu zioten aitari, Txintxarriren banatzaile xelebre batzuek, aldizkariaren ale berezi bat banatu zuten, Jonen ikasle batzuek trikitixarekin pieza batzuek jo zituzten, Landaberri Antzerki taldekoek klown ikuskizuna eskaini zuten, Zigor Iriondo eta Ane Labakak bertso batzuek kantatu eta azkenik dantzaldia izan zen Atxega, Iparragirre, San Jose eta Iker Telleria musikarien laguntzarekin.

### Nafarra Lasarte-Orian

Jon Lasaren bizarrak, gitarra edo soinua aldean, eta inguruan ume koadrila, musika eta kantua, izan ditugu urteko edozein garaietan eta tokitan Lasarte-Orian. Ez da ohiko musika irakaslea izan, musika jolas moduan hartu eta txikitatik musikarekin gozatzen erakutsi die ikasleei.

Nafarroako da Jon Lasa, Sakanan, Etxarri-Aranatz ondoko Lizarragan sortua eta bertako organista da. Altsasuko seminarioan zaletu zen musikarekin eta gero Lasarte-Oriara duela 32 urte iritsi zenetik irakasle aritu da, Landaberri ikastolan eta duela zortzi bat urtetik hona berak sortu zuen Amalur musika eskolan ere bai. Herriko gazteen gehiengoa pasa da beraz bere eskuetatik. Aurten utzi du Landaberri ikastolako lana, baina Lasak berak esan zigunez, "erretiratu baino, nire motorraren martxa aldatu egingo dut, martxa mantsoagoa jarri".

### Herriari begira

Bere ustez, musikak herriari begira egon behar du eta berak argi erakutsi du hori, herrian egiten diren kultur agerraldietara eraman baititu bere musika, eskolako ikasleak, euren gitarra, trikiti, pandero eta euskal giroa. Kantuaren eta euskal kantuen bultzatzaile ere izan da, bere ustez ahotsa da dagoen musika tresnarik ederrena, denok daukaguna eta erabili dezakeguna.

Euskararen maratoian zortzikoteko kide izan zen duela urte asko, eta beti parte hartu du era batera edo bestera. Bere iritziz, argi eta garbi erakusten du maratoiak Lasarte-Orian gaitasun handia dagoela. "Oso herri gutxitan egingo dira hainbeste ekintza, herriak erantzun egiten du. Festetan erraxagoa da gauzak kanpotik ekartzea; eskatzen dutena eman eta kitto. Baina festa herriak berak egiten duenean, orduan politagoa da".•

*“ Aurten utzi du Landaberri ikastola, baina Lasak berak esan zigunez, “erretiratu baino, nire motorraren martxa aldatu egingo dut, martxa mantsoagoa jarri”.*


GABON ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU LAGUNARTE EDERREAN!

M ZUBI
LASARTE-ORIA



Geltoki kalea 21 • Tel.: 943 362467 Faxa: 943 372794 • Lasarte-Oria
E-maila: muebleszubi@hotmail.com

i.URRUZOLA AROZTEGIA

EGUBERRIETAN POZA IZAN BEDI ETXE GUZTIETAN!

• Era guztietako arotz-lanak.
• Armairu barrenduak.
• Etxe barruko konponketak.
• Parket flotantea.



Oria etorbidea 4, behea
(Errekatxo jatetxearen ondoan)
Tel.: 943 371200 / 610 413131
LASARTE-ORIA

## **Iñgo Peña** / Musikagile eta irakaslea

# "Mariren labirintoa" musikala estreinatu zuen musikari gazteekin



Lasarte-Oriako Musika Eskolako Iñigo Peña musikagilearentzat 2009a urte oparoa izan da, maiatzaren 29an, estreinatu baitzuen "Mariren labirintoa" musikala Donostiako Victoria Eugenia Antzokian. Donostialdeko zenbait musika eta dantza eskolek parte hartu zuten muntaian, guztira 300 lagun inguruk.

Iñigo Peña musikari lasarteoriatarrak aurkezten duen lehenengo musikaleko istorioak, euskal mitologiako pertsonaiak eta gaur egungo gazteak nahasten ditu. Ia guztia abestua da, baina une instrumentalak, dantza, elkarrizketak eta argi-irudi efektuak ere baditu.

Peña berak azaldu zigun "oso esperientzia polita" izan dela. Duela lau urte sortu zen ideia, Euskal Herriko Musika Eskolen Elkarteak istorio bat bilatu eta musika jartzeko proposamena egin zuenean. Iñigo Peñak euskal mitologian oinarritutako proiektua aurkeztu zuen: orkestra, abesbatza, jazz taldea edo konboa eta bakarlariak behar ziren, iaz Donostiako Musika eskolek proiektua aurrera eraman nahi zutela esan eta ikasturtean zehar prestatu zuten maiatzean estreinatzeko.

*"Iñgo Peña musikagileak, maiatzaren 29an, estreinatu zuen 'Mariren labirintoa" musikala Donostiako Victoria Eugenia Antzokian. 300 lagun inguruk parte hartu zuen muntaian.*

Bere iritziz, zazpi urtetik gora edozeinentzat egokia da ipuina: "nahiz eta lana antzezten eta musika jotzen dutenak haurrak eta gazteak izan, adin guztientzako dela esango nuke. Asmoa hori zen behintzat. Nire ustez zapi urte azpiko haurrek ez dute ongi ulertuko ipuina. Gainera, esaten dutenez, laneko erritmo batzuek eta jazz giroa ez dira errazak, musikalki ez da entzuteko oso erraza".

Bakarlarietako bat, lasarteoriatarra da, Easo abesbatzako Sergio Garcia. Iñigo Peñaren iritziz, bakarlariak gazteak dira, baina oso profesionalak oro har. "Denek dakizkite kanta guztiak eta besteen ahotsak ere bai. Lan handia egin dute, polita izan da". •

## **Beltzak**/ Errugbi taldea

# 25 urte bete ditu aurten



Beltzak Rugbi Taldeak, aurten sortu zenetik 25 urte betetzearekin batera, kirol honi herrian bultzadatxo bat eman nahi izan dio eta, Ostadarren egituran errugbi saila sortu du, errugbi eskola martxan jarri eta herriko ikastolen Eskola Kirolaren programakuntzan errugbia sartu.

Lasarte-Oriako lehen errugbi taldea, 1984ko udazkenean 17 urte inguru zituzten Sasoetako gaztetxo batzuk osatu zuten, Euskal Herriko Errugbi Eskola Independientea bultzatzen zuen entrenadore bati esker. Hasieran, astean zehar, Dana Ona aurreko aparkalekuan entrenatzen zuten, "herrian argia zegoen toki bakarra zelako", eta igandetan hipodromoan. Lehen lau urtetan Lasarte R. T. izan zen. 1988an kirol-jantzi berriak erosi zituzten, beltzak bi marra zurirekin, eta ordutik taldeari Beltzak deitzen diote, izen hori hartu zuen.

Batez ere, Ipar Euskal Herriko taldeen aurkako lagunarteko partidak jokatzen zituzten. Jakina da, han maila handia dagoela eta, beraz, partidu gehienak galdu egiten zituzten, baina giroa bikaina izaten zen: Orduan jokalariak zirenek azaldu digutenez, "beste filosofia bat genuen, lehiatu baino errugbian jokatu eta ondo pasatzen genuen. Eta kirola maitatzen ikasi genuen, jokatzen genuenon arteko adiskidetasuna bultzatu..." "Galtzaile onak izan gara, baina hirugarren denbora beti zen gurea" diote.

Gainera, Aste Santuan kanpora bidaiak egiten zituzten, eta hainbat lekutan izan ziren elkarrekin, Holanda eta Alemanian, Eskozia eta Ingalaterran, Irlandan, Italian edo Ipar Euskal Herrian askotan. Bidaia hauei esker 25 urte ondoren harremanari eutsi diote, errugbiak lotzen ditu. Eskoziako 2007ko mundialean izan zirenean piztu zen berriro errugbia herrian bultzatzeko asmoa: "guk aukera eduki genuen bezala zergatik ez diegu haur eta gaztetxoei errugbian aritzeko aukera eskainiko?" •

*"Lagunarteko partida gehienak galdu egiten zituzten, baina giroa bikaina izaten zen: "Galtzaile onak izan gara, baina hirugarren denbora beti zen gurea" diote.*

ekilore
Goxokiak
Ondo pasa Gabon jaietan!
Fruitu lehorrak
Olibak
Geltoki kalea 6, behea
Tel.: 943 360863
LASARTE-ORIA

NEUS
ile-apaindegia
ONDO IGARO GABON JAIAK!
Pablo Mutiozabal 9-1.C
Tel.: 943 361691
LASARTE-ORIA

•ZATIKAKETA ARETOA
•URDAIGINTZA LANTEGIA
•BILTEGI HOZKAILUDUNA
BERTAKO FABRIKAZIOA
Tripakiak- Saltxitxak
Txistorra
Odolkia- Solomo ontzutua
Basurde burua
Etxeko txorizoa
Solomoa baratxuritan- Baserri patea
EGUBERRI ON!
ADURIZ DE LASARTE S.A
Loidi Barren kalea 3 • Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451
Lasarte-Oria

LAGUNAK
LAGUNAK ELEKTRIZITATE DENDA
EGUBERRI ON!
Etxebizitzetako
komertzioetako...
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Geltoki kalea 6, behea
Tel.: 943 371077
LASARTE-ORIA

YOLANDA TABERNA
EGUBERRI ON!
JANARIAK EMATEN DITUGU: EGUNEKO MENUA, BOKATAK, SANDWICHAK, PLATER KONBINATUAK,...
Pintore 1 • 695 501890



**Intsumisioak 20 urte.-** Duela 20 urte sortu zen derrigorrezko soldadutzaren aurka intsumisoen desobedientzia mugimendu zabala. Lasarte-Orian ehun bat intsumiso baino gehiago izan baziren ere ez zuten inor preso eraman. Hainbat urtetan kontzientzi eragozpenaren, intsumisioaren eta soldadutzaren berri eman zuen Talde Antimilitaristak udalaren bulego batean. Militarren aurrean plantatu ziren gazte haien borrokak ekarri zuen emaitza azkenean: legeak moldatu eta derrigorrezko soldadutza betirako kendu behar izan baitzuten. Garai haietan hainbat ekintza burutu zituzten herriko gazteek. Irudietan orduan antzeztutako parodietako bat. •

ABREU
ETORRI
GABONETAKO
OPARIAK
EROSTERA!
IZAN EGUBERRI ZORIONTSUAK!
aterpea
Geltoki 2 • LASARTE-ORIA
Idiazabal kalea 32 • URNIETA
Tel.: 943 365846

LIBRERIA MAITE



Geltoki 12
Tel.: 943 372791
LASARTE-ORIA
Eguberri on!



**Atez atekoa eta Somoto.-** Lasarte-Oriako Udal Gobernuak udazken istilutsua bizi izan du. Batetik, aurreko urtean Udalak ia aho batez (PPko zinegotzia falta zen) atez ateko zabor bilketa sistema bultzatzeko erabakia hartu bazuen ere, PSOEko Gobernuak erabakia bete ez eta albo batera utzi duenez, Ricardo Ortega zinegotziak Udal Gobernua utzi eta bi alderdien arteko hitzarmena hautsi zuen. Ondoren, Ingurumen saileko kargutik kendu eta Euskara batzordeko zuzendaritzan utzi egin zuen PSOEko gobernuak. Bestalde, oposizioko alderdi guztiek Somotora bidali diren Udal laguntzen banaketan irregulartasunak salatu zituzten eta Udalak aho batez onartu du laguntza banaketa hori begiratuko duen ikerketa batzordearen sorrera. Irudian, Ricardo Ortega hitzarmenaren apurketa iragarri zuenean. •

EGUBERRI JAI ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU!
Antonio Benito
Erregistratzeko kutxak
eta pantaila taktila
dutenak
Aralar plaza 1, behea
Tel.: 943 371313
20160 LASARTE-ORIA



DANI karrozeria
Trebeak gara
kolpe handiak konpontzen
ONDO IGARO
GABON JAIETAN!
• Kabina labeduna
• Txapak zuzentzeko oinarri unibertsala
• Tapizatuen garbiketa
Zirkuitu ibilbidea 12
20160 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 371440
Mobila: 608 391885
carroceriasdani@lditel.com

ELEKTRIZITATEA
ARREGUI



EGUBERRI ON!
aterpea
•Material elektrikoa
•Argiak
•Etxetresna elektrikoak
• TB/HI-FI
• Instalazio elektrikoak
Kale Nagusia 39 • Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521 • LASARTE-

Eskerrik asko
gugan jarritako
konfidantzagatik
SALAZAR PRO-FESIONAL
ile-apaindegiko eta edergintzako produktuak
EGUBERRI ON!
REVLON PROFESSIONAL
ALCÁNTARA COSMÉTICA
academie scientifique de beauté
L'ORÉAL PROFESSIONNEL
WELLA PROFESSIONALS



# Euskal jantzi tradizionalen nondik-norakoak

Azken urte hauetan nabarmen aldatu dira euskal jantzi trandizionaltzat genituenak. Ohiko traje ilunak, tantodunak eta beltza edo urdinak erabiltzeaz, kolore anitzekoak, alaiak eta biziagoak erabiltzera egin dugu salto. Baina badakizu nondik datorren gabonetan, eta jai garrantzitsuenetan baserritarrez janzteko dagoen ohitura? Egun gainera garrantzia gehien jantziari ematen diogu, baina ba al dikizue atondurak ere berea dutela?





Garai batean baserritar jantzi beltza ikusten zen kalean, gaur egun koloredunak ugaritu dira.

Gaur goizean, esnatu eta euskal jantzi tradizionala jarri dugu soinean. Santo Tomas eguna dugu, txistorraren, sagardoaren, taloaren... eguna! Eta nola ez ba, garai bateko euskal jantziekin gure gorputza atontzeko eguna. Agian batzuk gaur goizean traje berria estreinatuko zenuten, egun modan dauden koloredun horietakoa, aproposa baita gaurko eguna jantzia estreinatzeko! Orain dela hamar urteko traje ilun haiek gero eta gutxiago ikusten dira. Modak agintzen duenean gertatzen den bezala, koloretsuak diren euskal jantziak daude merkatuaren gailurrean. Gauzak honela, Ane Albisu folklore ikertzailearen lana azalduko dugu jarraian.

Euskal Herrian jantzi tradizionalaren esparruan, eraldatze prozesu ikaragarria gertatu da. Egun jantziari ematen diogu garrantzia gehien, ikusgarri egoteari, baina izatez, jantziari berari baino, janzteari, prestatzeari eta atontzeari eman beharko genioke garrantzia gehiago, eta nesken kasua zapiari.

Jantzi tradizionalak berreskuratzean antzinara begiratu eta orduko ereduak jarraitu behar dira, kalitatezko materialekin eginak, linoa, haria, zeta, etab. Gehiegikeriak edota ñabardurak, koloreen eta formen erabilera txarrak, ezinbestean mozorro bihur baitezake gure jantzia.

> *Mende honen hasieran, adineko jendeak baino ez zion eusten baserritar janzkerari*

Baserritar jantzia gure kulturaren ordezkaria, adierazlea izan da urte askotan. Jantzien benetako eraldaketa XIX. mendetik aurrera eman zen, garaiko industrializazioa eta karlistadak eraginda.

Tradizioen galera ekarriko zuela zirudien. Horri erantzuteko, abertzaletasuna sortu zen. Eta, era berean, baserritarrez janztea gure tradizioen adierazle nagusietako bihurtu zen.

## Modaren indarra

XIX. mendean janzkera zibila ez zuen jantzi zehatz batek osatzen, gerora baserritar jantziarekin gertatu zen moduan.

XX. mendearen hasieran, janzkera zibila, tradizioko jantziek osaturikoa, erromerietan erabiltzen hasi ziren. Momentu horretatik aurrera baserritar jantzia eta moda jantziak elkar bizi ziren.

Modako jantziek indar hartu, eta nekazari giroan ere hedatu ziren.

Era honetara, mende honen hasieran, adineko jendeak baino ez zion eusten baserritar janzkerari. Gainerakoek, erromerietan eta jaietan erabiltzen zituzten bakarrik, ospakizunen ikur bilakatuz.

Bi jantzi nagusitu ziren harez geroztik, baserritar jantzia eta dantzarako jantzia. Azken honetan, gizonak jantzi zuria eta gerriko eta txapel gorria erabiltzen zituzten. Emakumeek aldiz, Atlantiko osoan oso hedatuta zegoen gona gorria eramaten zuten.

## Gonak, hitzen partez

1936. urtean Espainiako guda hasi zenean, euskal ohitura eta tradizioei atxikitako guztiak debekua jaso zuen. Janzkerekin eta jantziekin, aldiz, ez zen horrelakorik gertatu.

Dantza taldeek zerikusi handia izan zuten honetan, trabak traba, ikuskizunei eustea lortu zutelako.

Frankok guda irabazi eta diktadura ezarri zenean, debekuei eutsi zien, baina jantziekin


M. Berasategi
Kafeak
EGUBERRI JAI
ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!

Beti dago aukera
kafe on bat hartzeko

INFUSIOAK
- TE BREAKFAST
- TE TXURIA
- TE BELTZA
- TE GORRIA (Pu-Erth)
- TE BERDEA
- TE EARL-GREY
- TE JAVA
- TE CEYLAN
- TE SAPOREAREKIN e.a....

TEINA GABEAK
- MELISA, TILA, KAMAMILA, MENTA, SAGARRA, ANIXA, MAKILGOXO, ROOIBOS, e.a...



KAFE ARABIKOA
- PARACATU (Brasil)
- TARRAZU (Costa Rica)
- Betiko KOLONBIA

Hipodromo etorbidea 1 • Tel.: 943 361316
LASARTE-ORIA

*Traje berriak koloretsuak, tradizionalak eta aintzinako garaian erabilitakoak balira bezala saltzen ziren*

## Buruko zapia jarri pausoz-pauso

**1**.- Burua prestatu. Ile motza izanez gero, ileordekoa ipini. Horretarako erabil daitezke: artilezko bolka, espartzua, etab.



**2**.- Zapia ahal dela lauki zuzena, diagonalean tolestua. Alderik luzeenari tolesdura bat egin. Aspildura moduan.



**3**.- Zapia erdiz erdi jarri buru gainean. Belarri gainetan heldu.



**4**.- Bi muturrekin korapilo bat egin kokotean.



**5**.- Erdiko erpina, ileordearen inguruan jarri, muturra buruaren alde batera gelditzen delarik.



**6**.- Beste bi muturrekin korapilo bat egin ileordearen gainaldean.



ez zuen hain zorrotz jokatu. Jantzien bitartez beraz, jendeak hitzen bidez adierazi ezin zuena helarazteko erabili zuen.

### 90ko hamarkada

Aurreko hamarkadan, ordura arte ikusi ez ziren jantzi askok argi ikusi zuten berriro ere.

Ohiko jantzi ilun eta tantodunak gure aiton-amonengandik hartuak, alde batera utzi eta traje berriak koloretsuak, tradizionalak eta aintzinako garaian erabilitakoak balira bezala saltzen hasi ziren.

Izan ere, euskal jantzi tradizionak bat egitea ez da nolanahiko kontua, ikerketa lan handia eskatzen baitu.

Hala ere, bada gara bateko jantziak berritzen dabiltzan pertsonak eta lan handia egiten ari dira.

### Egoki jantzi

Jantzi egokia izatea bezain garrantzitsua da behar bezala janztea.

Baserritar jantzia abarkekin eraman beharrean kiroletako oinetakoekin eramatea gaur egun oso hedatua dago.

Osagaiek ere garrantzia dute eta galtzeko zorian egon dira batzuk.

Emakumeen kasuan, jantziaren osagarri garrantzitsuenetakoa eta galtzekotan egon dena, buruko zapia da.

Aztertzaile askok diotenez, "euskal jantziaren garrantzia burutik hasten da, buruko zapia eta txapela oso garrantzitsuak dira Euskal Herrian."

Buruan eramaten duguna tradiziozko jantzietatik mantendu da, eta horretan jarraitu behar da.



Adibide gisa, ikastaroan egin duten jantzietako bat duzue irudian.

### Zapiaren garrantzia

Lehen modu ezberdinetan orrazten ziren emakumeak eta zapia buruan modu ezberdinetara jartzen zuten, zeramaten orrazkeraren arabera, mototsa edo txirikorda.

Gainera, emakumearen egoera zibila ezagutu zitekeen, zeramaten zapiaren koloreagatik. Kolore zuria, ezkonduek eramaten zuten eta ezkongabeek estanpatua edo koloreetakoa.

Era egokia egokian nola jartzen den ikasteko, ez galdu prestatu dizuegun taula. Pausoz pauso, burua ondo atontzeko argibideak dituzue.

### Jantzi ikastaroa

Gauzak honela, azarotik hona, gure herrian lan eta lan ibili da emakume talde bat. Dendara joan eta jantzia hautatu beharrean, haiek bere jantzia edo familiako kide batena egitea erabaki dute.

Ttakun Kultur Elkarteak antolatutako jantzi ikastaroaren ikasleak ditugu horiek eta Jone Artola jostunaren laguntzaz, emakume, gizonezko, zein haurrentzako jantzi tradizionalak egin dituzte.

Oihalak eta hariak astean bitan bete dute Erribera kaleko lokala. Bertan, gonak, azpiko gonak, blusak, zapiak eta mantalak egin dira, hainbat teknika erabiliz, bainika, joztugintza eta ehoziriak.

Guztiek lan ederra egin dute eta makinek erritmo azkarra izan dute guztia egun hauetarako prest izateko. Horren adibideetako bat ondoan dugun argazkia dugu.

Era honetara, jantzi hauek kalean ikusi ahalko ditugu gaur edo Eguberrietako egun hauetan. •




GURE BEZEROENTZAKO OHARRA
ELI DAGO, BERRIRO ERE, ARRATSALDEETAN !
IZAN EGUBERRI ZORIONTSUAK!
Elisabeth Ileapaindegia
Orrazkerak eta soinekoak
URTEZAHARRERAKO
Hipodromo etorbidea 10
20160 Lasarte-Oria
Tel.:943 361597

Eta orain...
Paris eta Italiako arropa ere saltzen dugu, etorri ikustera!

75
URTEURRENA
1935-2010

ILLARRETA
ITURGINTZA

GABON ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU
LAGUNARTE EDERREAN!

K21

ERAKUSKETA ETA DENDA
Geltoki kalea 21 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 363147
linterneriaillarreta@yahoo.es

TAILERRA ETA BULEGOA:
Ugaldea polig. 8 • Tel.: 943 361752
USURBIL • illarreta@yahoo.es



• Zink, berun eta arbelean eraikuntzak eta konponketak
• Instalazioak: garbitzeko ura, berogailua, gasa, zoru bero-emailea eta aire girotua
• Erakusketa eta salmenta: aparatu sanitarioak, kanilak, komuneko altzariak, manparak eta osagarriak

• Igeltserotza orokorra
• Etxebizitzen eta lokalen berrikuntza osoa
• Gremioen kordinazioa
• Arreta pertsonalizatua

• Luxuzko autokarrak.
• 22, 28 eta 31 plazako mikrobusak.
• 56 plazako autobusak.
• Autobus literadunak.

Ubilluts auzoa, 55. poligonoa 9-4 • 20140 ANDOAIN
Tel.: 943 305050 • Faxa: 943 305060
e-maila: info@autocaresurpa.com
web orria: www.autocaresurpa.com

URPA
AUTOBUSAK

ONDO IGARO GABON JAIAK!



SANCHO TABERNA

EGUBERRI ON!



HITZARTUTAKO
eta
TALDEENTZAKO
MENUAK

KAXUELA, PINTXO ETA
MORUNOETAN
ESPEZIALIZATUA

OGITARTEKOAK
PINTXOAK
PLATER KONBINATUAK
EGUNEKO MENUA



Oriamendi enparantza 1 behea • Lasarte-Oria
Tel.: 943 372075



Iñgok ez ditu soilik aktoreen sinadurak biltzen, Josune Bereziartu kirolariarena ere badu.



Jose Antonio Labordeta kantari ezagun arekin ere egon da Iñgo Artola.

**Iñigo Artolak aurten ere lortu ditu altxorrak.-** Urte bikaina izan da Iñigorentzat aurtengoa. Pertsona askoren sinadura eta argazkiak lortu ditu, adibidez Concha Velasco, Joaquin Sabina, Aitana Sanchez Gijon, Anatoli Karpov... Irudiotan ikus ditzakezue inguratu dituen altxor horietako batzuk. •



*Vaya Semanita* zuzentzen duen Andoni Agirregomezkorta aktorearekin.



Dani Arizalarekin Zubietan egon zen.



















# Bego Bergara, gabon be bildutako sosen aztarna

▌Udan bisitatu dute Ertamerika dirua non eta zertan er hiritik gertu mendialdean diren herrixketan ▌Eskola eta

**Ahizparekin eta beste bi lagunekin egon zen Bego Bergara aurtengo udan Nikaraguan, urtero gabonetan bildutako diruarekin bertan egindako lanak zuzen zuzenean ikusten. Bere ahizpa Aintzane duela 23 urte egona zen brigadista moduan, eta biak animatu ziren uztailean beste bi lagunekin Ertamerikara joateko. Hilabete osoa pasa zuten Nikaragua eta Kosta Rican. Alejandro Romoren Andres Moreno lagun minaren bidez ikusi zuten han, gabonetan hemen urtero biltzen duten dirua zertan erabiltzen den. "Esperientzia zoragarria izan da, jende oso jatorra ezagutu dugu, borondate handia daukate, beti laguntzeko prest dira" esan digu Begoña Bergarak.**

**Jon ALTUNA**

Eguberritan kalez kale kantatuz "Nazimientoaren lagunek" lortzen dituzten sosak Nikaraguan erabiltzen dituzte. Alejandro Romo herritarraren lagun Andres Morenok jasotzen ditu. 1986tik bertan bizi da bera. Aurten ere Lasarte-Oriako emakume taldea, senide eta lagunekin batera, kalez kale aterako da abenduaren 24an gabon abestiak kantatu eta txanpon batzuk biltzeko. Umore ona, gogoa, soinua, panderoa eta jaiotza izango dituzte lagun gabon bezperan goizeko 10etatik eguerdiko 2ak aldera bitartean eta jasotako diruak Nikaraguara bidaliko dituzte Yankie eta inguruko herrixkatako beharrei erantzuteko.

Bego Bergarak adierazi digunez lan asko egiten du Andrés Morenok Nikaraguako Granada hiri inguruan diren mendialdeko herrixka behartsuet an, "buru belarri aritzen da erabat modu altruistan, ezeren truke alegia. Granada hirian bizi da bera eta mendialdean dira hainbeste behar dituzten komunitate hauek".

Managua hiriburutik hegoaldera 40 bat kilometrora dago, Granada, eta hiriburuaren ondoren hiririk garrantzitsuena da, daukan historiarengatik batetik eta bestalde, hurbil zenbait paraje eder dituelako, esaterako, Sultan sumendia, Cocivolca lakua edo Pazifikoko hondartza ederrenetarikoak, hauek 50 kilometro ingurura. 191.000 biztanle dituen Granada, Nikaragua osoko hiririk zaharrenetarikoa, bi egunetan ikusi zuten.

Argi dute Begoña eta bere lagunek urtero Lasarte-Oriatik bidaltzen dituzten diruak ondo erabilita daudela. "Ikusi dugu Morenok nola egiten duen lan, arazoak psikikoak dituzten umeak zaintzen ditu, herrixka horietan ez dute dirurik ezta medikuarengana eramateko ere, eta bera arduratzen da;


Bego Bergara uztailean Nikaraguan.

> *“ Andrés Moreno buru belarri aritzen da lanean komunitate behartsuetan arazoak dituzten haurrekin, erabat modu altruistan, ezeren truke alegia*

Managua hiriburura eramaten ditu autobusez. Yankee, Las Quebradas, Mancotal eta Sisle Komunitateetako Minusbaliotasuna duten Haurren Elkarteko ordezkaria da Moreno. Hamaika urte daramatza lan horretan. Umeek sarri ez daukate eskolara joateko mediorik ere" kontatu digu Bergarak.

Oporretara joan ziren Costa Rica eta Nikaraguara, Turismo apur bat egin zuten, batetik bestera ibili ziren autobusez, guztira hilabete, baina eurengan eragin eta zirrara handiena herrixka behartsuetan pasa zituzten bi egun horietan sentitu zuten. Mancotal eta Sisle izeneko herrixkatan izan ziren haurrentzat antolatu zuten jaialdi batean.

**Emakumeei babesa**

Bestalde, hurrengo egunean bortxatutako nesken harrera etxe batean izan ziren beste kokaleku edo kanpamentu batean. Morenok eraiki du batere babesik gabe izaten diren emakume hauei laguntzeko. Han bi egunetan ikusi eta bizitakoak "lur jota" utzi zuela aitortu digu Bego Bergarak.

Oñatiko hiru neska, erizaintzako ikasleak, ere han ziren laguntza ematera joanda. Umeetako batzuk hainbat urte etxetik atera gabe edukitakoak ziren eta benetan laguntza behar zuten. "Ezkutatuta eta jaramonik egin gabe eduki zituzten hainbat urtean, garbiketa eta eguneroko beharren baldintza oso kaxkarretan. Hiru neska horien helburua hangoak prestatzea zen gero gaixo horiei laguntzeko. Ni lur jota geratu nintzen".

Haurrentzako festa egun osokoa izan zen goizean hasi eta gauera arte. Umeentzat antolatzen dituzte tarteka, ipuin, pailazo eta abarrekin, animazio apur bat behar izaten baitute ume horiek: "askok euren gurasoei laguntzeko lana egiten dute eta ez dira eskolara ere jaisten. Nola jaitsiko dira? Ume batzuek hainbat kilometro egiten dituzte oinez edo zaldiz festa hauetara joateko. Down sindromea duen ume batek bi ordu eta erdi egin zituen zaldi gainean mendiz mendi festara iristeko eta ondoren bueltا. Guk Granadatik pare bat ordu behar izan genituen autoz iristeko".

Oro har, behar asko dute, ez dute ezer askorik, erreka baztarretan eraikitzen dituzte askok

# zperan kantatuz jarraituz Nikaraguan

## abiltzen den ikusteko ▮ Behar handiak dituzte Granada sexu erasoen biktimak babesteko gunea eraiki dituzte



Bego Bergara bisitatu zituzten komunitateetako umez inguratuta. Atzeko partean bere ahizpa dago zutik.

etxeak, ura bertan daukatelako eta gero haize eta euri ekaitzak iristean dena eramaten diete.

### Hilaren 24an kantari

Bego Bergarak lana egingo du abenduaren 24an baina ikusitakoak ikusita bere lagunak aurten oraindik indartsuago aterako direla aitortu digu berak. Urtero bezala, jaiotza eta maindirea hartu eta Nikaraguara bidaltzeko dirua batzeko gabon kantak abestuko dituzte kalez kale.

Aurreko urteetan 600 eurotik gora jaso dituzte, Alejandro Romok, Morenori bidaltzeko. Romo berak egindako jaiotza dotorea eramaten dute.

Aurten zortzigarren urtez aterako dira, gutxi gorabehera 30 bat lagun. 2002an hasi ziren txikitako oroitzapenek bultzatuta. Kaxkoan kantatuko dute, baina zaharren etxera joan-etorria egingo dute kantari zahar eta gazteek. Lehen urtetan aurrez abestiak prestatzeko elkartzen ziren, baina abesti berak kantatzen dituztenez jada ez. Honez gero ikasita dituzte gabon kantak, beraz asko prestatu gabe, baserritarrez jantzi eta 10:00 eta 14:00 artean kantatzera aterako dira.

> *“Gabon bezperan kalez kale aterako da emakume taldea Nikaraguara bidaltzeko txanpon batzuk biltzeko. Dirua Andres Moreno Nikaraguan 1986tik bizi den Alejandro Romo lasarteoriarraren lagunari bidaliko diote. Honek minusbaliotasuna duten haurrekin eta bortxatuak izan dinenekin lan egiten du*



Aurtengo uztailean Mancotal herrixkan umeentzako antolatu zuten festa.













# Laguntza gutxi dago mendialdeko herrietan

Andres Moreno 1986an joan zen Madriletik Nikaraguara, berez hilabeterako, baina bertan geratu zen. Jinotega ingurukoak dira bere emazte eta seme alabak eta han izan zen gerra garaian. Gerora atera beharra izan zuten baina 1998an itzuli ziren Mitch urakanaren eraginen ondorioz. Valladolidekoa da jaiotzez, baina Madrilen bizi zen, hemendik brigada batekin Nikaraguara abiatu eta herrialdeaz zein bertako jendeaz maitemindu zen arte.

Dena den, erreta eta nekatuta dago Moreno laguntza gutxi jasotzen duelako: aurrera egin nahi du baina zailtasun asko ditu eta Nikaraguako Gobernutik ez diote nahi beste laguntzen. Nikaraguara 1986an iritsi bazen ere 1998tik ari da lanean Yankee, Las Quebradas, Mancotal eta Sisleko komunitateetan. Nekazarientzat etxeak eta batez ere eskolak eraikitzea zen orduan helburua. Morenok lasarte-oriarrei kontatu zienez, "nekazariek eurek eraiki zituzten bertako materialekin guk lagunduta. Esaterako Yankee-2 herrixkan 85 umeentzat irakasle bakarra zegoen eta klaseak arbola baten azpian ematen zituen. Pabiloi handi bat sortu genuen eta bertan ematen ziren klaseak Estatuak eskola eraiki zuen bitartean. Ondoren beste 5 ikasgela eraiki genituen ondoko Quebradas eta Yankee1 herrixkatan".

Andres Morenok kontatu zien arazo eta zailtasun asko dituztela eta denei erantzuten saiatu direla. "Esaterako udan edateko erabiltzen zuten ura putzuetakoa zen eta iturriko ura izateko zuloak egin ziren, bonbak jarri,... baina arazorik larriena atzerapen-en bat zuten haurren egoera zen. Zuhaitzen adarrekin egindako ohatila batzuetan pasatzen zuten eguna, etzanda, garbitasun baldintza txarretan eta eguzki argirik ikusi gabe. Plastiko beltzarekin egindako etxeetako zuloetatik sartzen ziren ikusten zituzten argi izpi bakarrak. Orduan hasi ziren atzerapenen bat zuten haurrekin lanean. Egitasmoaren barruan sartzen ziren medikuengana bisitak, botiken erabilera, formakuntza tailerrak, elikadura eta abar".

Andres Morenoren iritziz, "arazo honekin batera, nekazaritzan erabiltzen dituzten pozoien, kultur atzerapenaren, haurrenganako utzikeria edota gerraren arrastoen ondorio, emakume eta haurren aurkako gehiegikeria sexualak kezkatzen zituzten gehiena". Morenok egindako lanari esker, gaur egun herrixka hauetan gehiegikerien aurkako batzordea dute, batez ere biktimei lagundu eta babesa emateko: Salaketak egiteko laguntza eta laguntza psikologikoa ematen da, eta baita astakeria horiek gertatzen diren etxeetatik atera ahal izateko laguntza zuzena ere. •

*“ Yankee-2 herrian 85 umeentzat irakasle bakarra zegoen eta klaseak arbola baten azpian ematen zituen*


Andres Moreno, argazkiaren goiko partean da makurtuta. Irakurtzeko ipuinak eraman zituzten Mancotaleko festara.


Hiru neska hauek ere euskaldunak dira eta uda honetan Nicaraguan egon dira arazo psikikoak dituzten umeei laguntzen.











LUIS CAR
autobusak
EGUBERRI JAI
ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU!
LUIS CAR
-Espainiako eta nazioarteko garraio-zerbitzuak.
-Enpresentzako, ikastetxeentzako...zerbitzuak.
-15 plazako microbusak.
-55 plazako autocarrak.
-Elbarrientzat behar bezala prestatutako autokarrak.
Uzturre plaza 1 Tel./faxa:943366316 Mobila: 629461897 LASARTE-ORIA


Maite BETELU
GABON ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU
LAGUNARTE EDERREAN!
Gestoria
Aholkularitza
Inmobiliariako
zerbitzuak
Aseguruak
Etxebizitzen
GESTORIA
SERVICIOS INMOBILIARIOS
VITALICIO
ASEGUROAK
Aralar plaza 4 eta 6, behea • LASARTE-ORIA •
Tel.: 943 364886 • Faxa: 943 372117

# Lasarte-Oriako jaiotzak ikusgai





Danok Kide Elkartekoa da herriko jaiotzarik handiena. Urtetan Alejandro Romok muntatu eta sortu du, aurten erreleboa emanez gazte talde batek jarri du martxan. Hara hurbilduz gero, Herodesen gaztelua, Jesus haurraren sehaska kulunkatzen, artzainak dantzan... ikusiko dituzue.



Oriako Karmengo Amaren kaperan hilaren hasieratik dago jaiotza ikusgai. Igandeetan, kaperara hurbiltzen den orok ikusi ahalko du.



Urtero bezala, Brigitatarren komentuko atarian ere jaiotza ipinita dago, asto eta guzti.

MUGICA & ABURRUZA
aseguru artekaritza, S. L.

*IBILGAILUAK
MOTOZIKLETAK
AUTOMOBILAK
AUTOKARABANAK
FURGONETAK
KAMIOIAK...

*MERKATARITZA
*BIZITZA ETA ERRETIROAK
*OSASUNA
*ISTRIPUAK ETA GAIXOTASUNAK

*ERANTZUKIZUN ZIBILA
*ETXEBIZITZA ETA KOMUNITATEAK
*INBERTSIOAK
*PYMEAK...

Ganbo Kalea 1 LASARTE-ORIA Tel.: 943 363449 & Faxa: 943 372413

ONDO IGARO GABON JAIETAN!

AUTOESKOLA MUGICA

Ganbo kalea 1, LASARTE-ORIA
Tel.: 943 362275 & Faxa: 943 372413

ONDO IGARO GABON JAIETAN

IRIGOYEN
OPTIKA

Largoenea 1, Tel.: 943 371047





# Olentzero, euskarazko jostailuak ekarriko dizkidazu aurten?

Opariak non nahi urtaroko sasoi honetan, gure etxean, aiton-amonenean, edo osaba-izebenean.

Pinuaren azpian Olentzerok aurten eskatutako opariak jarriko dizkigu, hori bai, izan dugun portaera ona edo txarraren arabera, gehiago edo gutxiago.

Jostailu, jolas, liburuen merkatua gero eta zabalagoa, zer oparitu? Zer eskatu? Gero eta zailagoa da!

Euskarazko produktuak ere bere lekua aurkitu dute merkatu zabal eta konpetitibo honetan. Aisialdira, hezkuntzara bideratutako jolasak, aurten ere euskaraz lortzeko aukera dugu *Euskarazko produktuen katalogoa*ri esker.

Euskara ez da soilik hezkuntzarekin lotu behar, ondo pasatzeko aukera ere eskaintzen digu eta.

### Ibilbidea

Duela 12 urte, Nafarroako udal gutxi batzuek eman zioten hasiera *Euskarazko produktuen Katalogoa*ren ekimenari.

Harez geroztik, asko hazi da, eta momentuan, 135 tokientitate, 200 udaletik gora osatzen dute.

Honela, katalogoa bultzatzen duten udalerriek bat egin eta Euskal Herrian XII. edizioa duen katalogo honek 240.000 aleko tirada osatu du, "etxeko haur eta gaztetxoek euskaraz jolasteko, ikasteko, irakurtzeko eta gozatzeko aukera izan dezaten nahi dugu".

### Eskaintza zabala

Filmak, jostailuak eta jokoak, musika, komikiak, aldizkariak, liburuak, gurasoentzako materiala, informatika...

"Euskarazko produktuak erdararen itsasoan nabarmendu behar dira, eta egon badagoen hori erdarazko produktuen itzaletik argitara ekarri," adierazi dute katalogoaren ardunadunek.

Paperezko katalogoaz gain, aurten argitaletxeek eskaintzen dituzten produktu guztien erreferentziak *www.katalogoa.org* web gunean ere bisitatu daitezke.

Bertan, produktuaren edo adinaren arabera banatuak daude eta produktuen prezioa eta ezaugarri gehiago ere ezagutu daitezke. Azken finean, ekimenaren arduradunek katalogo hau gurasoentzat lagungarri gertatzea nahi dute.

Produktu ugari Euskarazko produktuen katalogoan aurkitu daitezkenak. Beraz, katalogoko oparirik ez egiteko, aitzakiarik ez dago. Hezi euskaraz eta gozatu euskaraz! •

## *Nobedade batzuk*



**George Kuxkuxeroa**

Filme honetan Tximinorik abenturazaleenak, George Kuxkuxeroak, Txapela Horidun Gizona aurkitu du, eta hiriraino jarraitu dio jakinminak bultzatuta. •




**Haurrock**

Diska honetan, Rock, Zouk, kantu arin edo sakon.. estilo ugari horiekin, haurrek kantatzeko eta dantzatze aukera izango dute karaoke formatoari esker. •



**Herrien Europa**

Europako mapan kokatzen diren Estaturik gabeko herriei buruzko informazioa, ikasten duten bitartean, jolasteko 3 Kd-rom ere badituzte. •




**Irribarreen ibilbidea**

Jostailu honen bidez, zu zeu eta gainerako pertsonak onartu, ezagutu, emozioak identifikatu eta adierazteko aukera izango duzu. •



**Aupa !**

Kalean putzu handiak daude, eta txakur handi-handi bat topatu dugu; beldurtu egin nau. Aitak jaso egin nau, eta beti esaten dit: Aupa! •



**Txilipristin**

Herrikoiak diren kantak, ezagunak eta hain ezagunak ez direnak, era errez batean gogora ekartzea, ahozko transmisioari bultzada bat emanaz. •



















Sahararrek autodeterminazio eskubidea eskatu zuten multimusikalaren atarian.



Sorkuntza aske eta herrikoia aldarrikatu zuen larunbat eguerdiko kalejirak.



Larunbateko babarrun janean giro bikaina izan zen. Hasiera besterik ez zen izan.




Multimusikala herritarren aportazioei eta hainbat lagunen lanari esker antolatu da.

## VIII. multimusikala

# Kanpoan hotz barruan bero

Musika giroak berotu du asteburu hotza Lasarte-Orian. Larunbat eta igandean hotz egin du kanpoan, baina VIII. Multimusikala burutzeko Andatzan jarri zen karpa barruan eta herriko tabernetan giro goxo eta beroa izan da. Larunbat gauean elurra ari bazuen ere, inor ez zen beldurtu, jolaserako jokoa eman besterik ez zuen egin.

Karpa berotzeko hiru berogailu jarri zituzten antolatzaileek, eta eskertu zen, baina barrutik bero zen jendea bestela ere, dantzatzeko musika izan zen nagusi gau osoan eta pixkanaka berotu zen giroa. Gaueko ska doinuak entzun zein dantzatzen eta erromerian, oso gustura izan ziren multimusikalerako jarri zen karpara hurbildu zirenak. Eta berotzen lagundu zuten Valentziako Carcaixent herritik etorritako koadrilak ekarritako edariek ere: *Casaya* eta *Rufo*, anis eta belarrak dituzten likoreak dira, barrua berotzen dutenak eta *burret*-a ere saldu zuten, kafearekin egindako likorea kokakolarekin nahastua. Hori edan zutenak esna egon ziren gau osoan.

### Valentziarren azoka

Startats taldea eta beste hainbat lagun etorri dira Valentziatik, eta hainbat gauza ekarri dituzte: hango laranja bildu berriak, jada gure dendetan saltzen ez diren horietakoak, likoreak,... Gauetan likoreak eta *burret*-a saldu dituzte, atzo, igande eguerdian, Valentziako paella bikainak egin zituzten ehun bat lagunentzat eta asteburu osoan laranja ekologikoak saldu eta laranja ura banatu dute. Atzo arratsaldean, jada Valentziako aigua edo ura saltzen zuten, laranja ura, kaba, likore lehor eta azukrearekin egindako edaria alegia. Harreman polita sortu da multimusikalean valentziarrekin. Aurretik herriko talde bat egona zen Carcaixent herrian.

Musika estilo ugari, pop, rock, ska, rap, trikitixa, metala,... izan dira VIII. Musikalean. Aurtengoa, larunbatean, goizeko 11:30ak aldera hasi zen eta igandean gauean amaitu. Hotza izan da giroa, baina kanpoan bakarrik, oholtzan eta musikarien inguruan beroa izan da eta. Musikarekin gozatzeko gogoa ez da hoztu eta larunbat goizean goizetik gazte ugari elkartu ziren Andatza Plazan jarritako karpan. Karpan gazte eta gaztetxoak izan dira nagusi baina zaharragoak ere hurbildu dira tarteka musika dastatzera.

Baina ez da musika bakarrik izan asteburu multimusikalean. Sahararekin elkartasuna adierazi eta sahararren independentziaren aldeko leloak zeuzkaten sahariar batzuk karparen sarrerako atean izan ziren larunbat eguerdian, hotzari aurre egiteko, euren edari tipiko beroa eskainiz. Multimusikalak bat egin du Sahararen independentziaren aldeko aldarrikapenarekin.

Larunbatean eguerdiko 12:45 inguruan "Sorkuntza aske eta herrikoia" aldarrikatzen zuen kalejira abiatu zen Andatzatik, Danborrak eta dantzak izan ziren nagusi herrian, Andatza, Kultur etxe eta Brijiden plazatik







Txalagore taldeak girotu zuen igande goiza.





Valentziatik etorritako taldeak hainbat likore eta laranjak ekarri zituen. Gainera igandean paella egin zuten ehun lagunentzat.



Lau bertsolariak mahaiz mahai ibili ziren bertsotan.

barrena egin zen kalejiran, jai giroan zihoazten, batukada aurrean eta atzetik gazteak.

### Babarrun jana

Ondoren, 15:00ak aldera hasi zen indarberritzeko babarrun jana txorizoa, aza, odolki, ohiko beste osagaiekin. Gazte asko bildu ziren bazkari herrikoian. Eta handik aurrera musika entzun zen nonahi. Urrutitik entzuten ziren karpa doinuak, eta tabernetan bero zen, giro goxoa.

Gauean Andatza plazako karpan dantza egin zuen jendeak ska eta erromeria doinuekin. Abenden aldiz, Namek Planet eta Oreindik taldeekin kalitatezko musika izan zen, Timon tabernan karaokea egun osoan, eta gaueko ordu txikietan DJak, bai karpan eta baita, Obelixen DJ Naken, Ilargin Selektah Stepi, eta Jalgin Revolutionary Brothers.

Igandean ere giro bikaina izan zen goizean Txalagore taldearekin, paella janean ehundaka lagun eta bertso saio bikaina, ondoren, rockumentala eta amaitzeko Aguraingo Etxeko Taldea eta Makulu Ken.

Bazkalostean lau neska aritu ziren bertsotan, Amaia Agirre, Uxue Alberdi, Miren Artetxe eta Ane Labaka. Unai Muñoak bertan zirenekin ligatzen jarri zituen lauak, eta mahaiz mahai pasa ziren kantari batekin eta bestearekin saiatuaz.

Bukaeran lehen balorazio baikorra egin zuten antolatzaileek, eta eskerrak eman multimusikaleak parte hartu duten guztiei.•



Makulu Ken taldeak eman zion amaiera VIII. Multimusikalari.


# JOSE AIZPURUA UNANUE S.L.
## eraikuntzak

IZAN EGUBERRI ZORIONTSUAK !



- Igeltseritza orokorrean
- Fatxaden estaldurak
- Estalkien berriztatzeak
- Gremioen koordinazioa
- Barne erreformak

Obaba Kalea 29 • Asteasu • Tel./Faxa: 943 696 852 • Mobila: 620 800186



Valentziatik Ska doinuak ekarri zituen The Skartats talde dotoreak.



Iparraldetik etorritako Zezenaren taldea musikari xelebre hauen emanaldia bikaina izan zen. Behean Skasti taldea.



Karpan hotz egiten zuen, antolatzaileek irizpide onarekin hiru berogailu jarri zituzten, baina gehiena goxatu zutenak taldeak izan ziren. Ikusleak dantzan jarri zituzten, hotzari aurre egiteko modurik onena. Valentziatik, iparraldetik edo Zarauztik etorri argi geratu zen musikak ez duela hizkuntzarik eta unibertsala dela.



Goizaldera erromeria izan zen karpan eta dantzan jarri zituzten bertan bildutakoak.



Ilargi taberna goiko partean jardun ziren bi musika jartzaileak.



Nekan DJa aritu zen 10 urte bete dituen Obelix tabernan.




Revolutionary Brothers lanean Jalgin.






Kalean ere aritu zen talde bat larunbat iluntzean giroa berotzen. Sagardotegi kalean egin zuen geldiunetako bat.



Sustrai tabernan Valium taldeko neskak ia ez ziren kabitzen.

# Giro beroa karpan... eta tabernetan

Arratsaldeko lehen orduetan hasi eta goizaldera arte aparteko giroa izan zen tabernetan. Sustrai eta Jalgi izan ziren kontzertuei atea ireki zien lehenak, karpakoak hasi baino lehen. Sustrain Gasteizko Xuorum eta Iruñeako Valium hau neskaz osaturiko taldea izan ziren eta Jalgin Cant Explain eta Aldexo.

Iluntze aldera, beste tabernetan ere kontzertuak hasi ziren, Xirimirin Errugabe eta Skate gaztetxoen taldeek jo zuten eta Obelixen Arraultza Ustelak. Gainera Udaberri tabernan, karpatik hurbil, raperoak aritu ziren eta Timonen karaokea izan zen. Baina kontzertuekin ez zen amaitu tabernetako giroa, Obelixen Naken, Jalgin Revolutionary Brothers eta Ilargin Selektah Stepi aritu ziren musika jartzen. Gainera gauean Abend tabernan Namek Planet eta Oreindik aritu ziren •



Skatu taldeko koadrila handia Xirimirin eman zuen kontzertuan.




Jalgin arratsaldean kontzertua eta gauean DJak izan ziren. Ez zen atseden hartzeko ia denborarik izan.



Oreindik taldekoak Abend tabernan izan ziren. Bateria jotzen Jokin Telleria.



ONDO PASA GABON JAIETAN!
• EGUNEKO MENUA
• ASTEBURUETAKO MENUA
• TRADIZIOZKO SUKALDARITZA
• ETXEKO POSTREAK
Larre
Larrekoetxe bidea 10 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 361012 / 943 360480

Ttakuneko kide guztien partetik
EGUBERRI ETA URTEBERRI ON GUZTIOI!
Kultur Elkartea
Ttakun

Riojanos
Erretegia
EGUBERRI JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!
Uistin kalea 13 • Tel.: 943 362720
LASARTE-ORIA

IZAN EGUBERRI ZORIONTSUAK!
UGARI
Supermerkatua
Igande eta jai egunetan ere goizez irekita!
Ola kalea 6 behea • Lasarte-Oria• Tel.: 943 36 21 60

ALTZARIAK
ONAK ETA MERKEAK
IZAN EGUBERRI ZORIONTSUAK!
IZARI-BI
Oria etorbidea 3
Brunet polig., 42. pab.
Tel./faxa: 943 360496
LASARTE-ORIA

MANOLI
estankoa
GABON ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU LAGUNARTE EDERREAN!
Geltoki 15 • Tel.: 943 362492 • LASARTE-ORIA

MAIDER
Taberna-Jatetxea
- Asteburuko menu bereziak
- Eguneko menuak
- Gaueko menuak
- Kartako zerbitzua
- Pintxoak
- Bokatak
- Razioak
- Plater konbinatuak
ONDO PASA GABON JAIETAN!
Hipodromo etorbidea 7 • Tel.: 943 362700 • LASARTE-ORIA

ONDO PASA GABON JAIETAN!
aterpea
JM
JOKAR Y MARKINA ITURGINTZA
OLA KALEA 12 • TEL.: 943 363932 • LASARTE-ORIA

ARROPADENDA ETA OSAGARRIAK
EGUBERRI ON!
Nagusia 44 behea • Lasarte-Oria 20160 • Tel.: 943 245760

## Egunero

**Haur parkea**

Eguberrietako Haur Parkea abenduaren 22tik urtarrilaren 4ra Michelingo Udal Kiroldegian. Haurrek sarrera doan izango dute eta helduen euro bat. Ordutegia: 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.Tailerrak egun osoan zehar izango dira eta ekitaldiak 19:00etan.

22an: Artilezko ponpoiak eta txapak
23an: Txotxongiloak eta txapak.
19:00etan haurrentzako magia ikuskizuna, *Madiber*
24an: Olentzerori eskutitza eta Gabonetako postalak (goizez)
26an: Globoflexia eta egutegiak
27an: Plastilina eta aurpegiak margotzea
19:00etan antzerki musikala, *Txolo hegalari Tontolo*
28an: Aurpegiak margotzeko eta kamisetak egiteko tailerra
29an: Artilezko ponpoiak eta malabarismorako pilotak
30ean: Plastilina eta aurpegia margotzea
19:00etan haurrentzako berbena, *Mugi-mugi Disko festa.*
31n: Txapak eta kotiloia (goizez soilik)
2an: Globoflexia eta txotxongiloak
3an: Malabarismorako pilotak eta maskarak egiteko tailerra.
19:00etan familia osoarentzako magia ikuskizuna, *Sunkers*
4an: Plastilina eta maskarak. Txokolatada.



## Egunero

**Erakusketa**

Soka artean, argazki erakusketa. *Zirika* artista gasteiztarraren argazkiak ikusgai hilaren amaiera arte. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan.

**Erakusketa**

Naturaren argazkilariak 2009 lehiaketako argazkiak ikusgai Kutxaren babesarekin, Kultur etxean 18:00etatik 21:00etara.

## Ostirala, 18

**Merienda**

Gabonetako merienda egingo dute urte agurtzeko asmoz. Bakoitzak berak prestatutako zerbaitekin parte hartuko du. Izen-ematea Zentroan bertan egin behar da. Emakumeen Zentro Zibikoan, 16:00etatik 20:00etara.

## Astelehena, 21

**Ekitaldia**

Txistorra bikaina dastatzeko aukera izango dute eta Landaberri Ikastolako haurrek zenbait kantu eskainiko dizkiete. Atsobakar zaharren egoitzan, 11:00etatik aurrera.

**Ekitaldia**

Festarako orrazkerak eta orrazkera bilduak egiten erakutsiko die Mani´s ileapaindegiko Adela Manibardok. Izen-ematea Zentroan bertan egin behar da. Emakumeen Zentro Zibikoan, 17:00etatik 18:30era.

## Asteartea, 22

**Festa**

Gabonetako uretako festa haurrentzat. 5etik 12 urte bitarteko igeri dakiten haurrei zuzendua. Kiroldegiko bazkideentzat doan eta gainerakoak ohiko kuota ordaindu beharko dute. Kiroldegiko igerilekuan, 10:00etatik 12:00etara.

**Txapelketa**

Kale Hezitzaileek hainbat jarduera antolatu dituzte. 22an arratsaldez 16:00etatik 20:00etara eta 23an goizez, 10:00etatik 14:00etara. areto-futboleko, saskibaloiko eta herri kirolen txapelketa antolatu dute. Sasoeta ikastetxean.

**Ekitaldia**

Ezpainzapitakoak eta apaintzeko bolak egiteko ikastaroa emango du Loli Lameirasek. Izen-ematea Zentroan bertan egin behar da. Emakumeen Zentro Zibikoan, 16:00etatik 18:00etara.

**Ekitaldia**

Emakume Zentro Zibikoaren ekitaldia. Atsobakar zaharren egoitzan, 18:00etatik aurrera

## Asteazkena, 23

**Ekitaldia**

Erretiratuen Elkarteko Abesbatzak emanaldia eskainiko du Atsobakar zaharren egoitzan, 17:30ean.

## Astelehena, 21

**Azoka**

Santo Tomasko feria ospatuko da Sagardotegi kalean. 17:00etatik aurrera talo postu bat egongo da, danbolinean erretako gaztainak eta Otaegi sagardotegiko sagardoa doan dastatzeko ere aukera izango da.

17:30etik aurrera Amalurreko txistulariek kalejiran ibiliko dira.

18:30ean trikitilariak hasiko dira martxan azoka gunean.

Jarraian, bertsolariek, Erketzeko dantzariek, Bixente Beltranek eta herriko hainbat txistulariek jaia alaituko dute.




ONDO IBILI JAIETAN !

• EUSKAL HERRIKO SUKALDARITZA

• JANGELA EGOKI-EGOKIAK, EZKONTZAK, JAUNARTZEAK ETA BESTE EDOZER OSPATZEKO

• ETXEKO ESPEZIALITATEA: PARRILLAKO ARRAINA ETA HARAGIA.

DANA ONA JATETXEA

restaurante@danaona.com
ZUBIETA (HIPODROMOAREN ONDOAN)
TEL.: 943 365347 / 943 361731 · FAXA: 943 366020





Incomán

GABON ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU LAGUNARTE EDERREAN !

☛ Ikerlanak, elektrizitatea aurrezteko moduez.
☛ MIC transpalak.
☛ MIC metagarriak.

Antxota kalea 2 • Tel.: 943 373198 / 943 373153 • Faxa: 943 365935 • LASARTE-ORIA






# agenda

## Osteguna, 24

**Kantaldia**
Olentzerotako erronda, auzoko plazan bildutan Goiegi, Loidi eta auzoko baserrietatik buelta trikitixa lagun izanik. Bukatzean luntxa eta Olentzerok opariak banatuko ditu. Zabaleta auzoan, 10:00etan, euskaraz.

**Kantaldia**
Nazimentuaren lagunak trikitixa lagun izanik, Lasarte-Oriako kaleetan zehar, 10:30ean.

**Kantaldia**
Erketz Dantza Taldea Lasarte-Oriako inguruetako baserrietan kantuan. Erketz D.T.ren lokalean, 14:30ean, euskaraz.

## Osteguna, 24

**Jaialdia**
Olentzerori ongi-etorria emateko jaialdia.
14:45ean Okendo eta Sagardotegi plazaren inguruan bilduko eta trikitilariekin kalejiran Olentzeroren bila joango dira. Etxez etxe opariak uzten hasi aurretik, herrian behar bezalako ongietorria egingo zaio. Amalur eskolako lagunak jaialdiari emango diote hasiera. Gero Lur, Marko eta Eztiren saioa ikusi ahal izango da eta Amaraun ludotekako lagunek prestatutako sorpresaz gain, agian txokomarrubizko ezusteko bat ere izango da! 17:45ean Olentzero Lasarte-Oriako haurren eskutitzak jasotzen hasiko da. Euskaraz



**Kantaldia**
Alboka Abesbatzak kalea girotuko ditu Lasarte-Oriako kaleetan zehar. Atsobakar zaharren egoitzatik hasiko dira, 16:30ean.

**Kantaldia**
11:00etan Gabon kantak
18:00etan Eukaristia
20:00etan Gabon-gaueko afaria
Atsobakar zaharren egoitzan.

## Igandea, 27

**Ekitaldia**
11:00etan Gabonetako ipuin eta kontakizunak
18:00etan Semblante Andaluz taldearen ekitaldia
Atsobakar zaharren egoitzan.

## Astelehena, 28

**Ekitaldia**
Goizean zehar kontuz *inuzente* eguna da eta!
17:30ean Gabonetako Bingo berezia opariekin
Atsobakar zaharren egoitzan.

**Ipuin-kontalaria**
Koruko Zurutuza ipuin-kontalariaren Ipuin bat irakurriko dugu? saioa. Haurrak bakarrik egongo dira eta behin ipuina hasi eta gero ezingo da gelatik irten. Denak puntu-puntuan hasiko dira. Kulturetxean, 18:00etan, euskaraz.

## Asteartea, 29

**Ekitaldia**
11:00etan Pintxo lehiaketa eta
17:30ean Asmo Onen Murala egingo dute Atsobakar zaharren egoitzan.

## Asteazkena, 30

**Ekitaldia**
10:30ean Brigidatarren Komentura bisita.
15:45ean Bolo txapelketa eta diploma banaketa
Atsobakar zaharren egoitzan.

**Txapelketa**
Kale Hezitzaileek hainbat jarduera antolatu dituzte gabonetan: *roller, BMX, skate, Breakdance eta Parkour*. Skate parkean, 16:30etik 21:00etara.

## Osteguna, 31

**Ekitaldia**
11:00etan Gabon kantak jaiotzaren ondoan
18:00etan Eukaristia
20:00etan Urtezaharreko afari goxoa eta mahats-festa
Atsobakar zaharren egoitzan.

## Larunbata, 2

**Kantaldia**
Sentimiento Andaluz taldearen eskutik ekitaldia. Atsobakar zaharren egoitzan, 18:00etatik aurrera.

## Astelehena, 4

**Irteera**
BECeko Eguberrietako Haur Parkera irteera. Gazte Klubeko Gazteburuen hirugarren ekintza izango da hau eta 9 -12 urte bitartekoek hartu dezakete parte. Irteera 10:00etan izango da ludotekatik.

**Antzerkia**
Lasarte-Oriako HHI taldearen antzezlana. Atsobakar zaharren egoitzan, 17:30etik aurrera.

## Asteartea, 5

**Kabalgata**
Erregeen kabalgata Oriatik hasiko da eta Andatza plazan amaitu. Herriko kaleetan zehar, 18:00etatik aurrera.




## Zorion-agurrak



**Gure laguntzaileak**
Eskerrik asko zuen laguntzagatik. Burunzpe guraso elkartea.



**Bego eta Mertxe**
Zorionak bikote! Muxu asko kuadrilla jatorrenaren partetik. Merienda zuen kontu!



**Arkaitz**
Zorionak zure guraso eta osaba Rafaren partetik. Ondo pasa.!



**Endika**
Zorionak zure urtebetetzean. 7 muxu handi familiaren partetik, bereziki, aita, ama eta Julen



**Unai**
Zorionak Alfredo, Pepi aiton-amonen partetik, eta muxu asko Aitorrek. Amari ere muxuak.



**Lander**
Zorionak, gaur parranda! Dagoeneko 3 kandela. Muxu potolo bat. Ane eta etxekoen partetik.



**Patxi eta Unax**
Zorionak bikote eta muxu handi-handi bat familiaren partetik.



**Oier**
Zorionak txapeldun! Txokomarrubizko 4 muxu potolo etxekoen partetik.



**Amona Pili**
Zorionak amona! 70 muxu goxuak gure partetik. Edozein ez da iristen! Asko maite zaitugu.



**Dei**
Zorionak! Ondo pasa zure egunean eta 9 muxu erraldoi amatxo, aitatxo eta Urtziren partetik

# Oharrak

**Etxeraten elkarretaratzea**
Hileko azken ostiralero bezala, Lasarte-Oriako Etxeratek kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte hartu dezaten.

**Odol ateratzeak**
Hileroko azken astelehenero bezala, datorrenean, hilaren 28an, odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroan arratsaldeko 18:30etik 21:00etara. Anima zaitezte, odola ordezkaezina da eta odol falta dago!

**Olentzero Zabaletan**
Aurten ere Zabaleta auzoko kdieak auzotik barrena gabon kantak abestuko dituzte. Horretarako entsaioa antolatu dute bihar, hilaren 22an, 19:30ean auzoko plazan.

**Euskal Herriko Kirolarien jaialdia abenduaren 27an**
Euskal Herriko Kirolariek abenduaren 27an Kirol Harria jaialdia antolatu da Donostiako Velodromoan. Jaialdia arratsaldeko 17:30ean hasiko da eta babesa emateko bertara joateko deialdia egin dute herriko hainbat kirolariek.

Jaialdiko informazioaz gain, www.euskalherrikokirolariak.org web gunean Euskal Herriko Kirolarien aldeko atxikimendua ere adierazi daiteke.

**EHNArekin arazoak izan badituzu**
EHNArekin arazorik izan badituzu edo/eta informazio gehiago nahi baduzu, harremanetan jarri zaitezke posta elektroniko honetan lasarte@baieuskalherriari.org. Ez izan dudarik eta bidali mezua lasai asko!

**Haurren bi zapata agertu dira**
Bata urdina da eta Hipodromo etorbidean topatu zuten orain egun gutxi. 19 zenbakikoa da eta Bubble bobble markakoa. Berri-berria dago. Bestea berriz, Lasarte-Oria Bai! Kroseko egunean, azaldu zen Jalgi kafe-antzokian. Marroia da eta 3-6 hilabeteko haurrentzako da.
Zapatak Ttakuneko bulegoan jaso daitezke.

**Ordulari bat galdu da**
Azaroaren 21ean emakumezkoen ordulari bat galdu zen herriko erdigunean. Korrea beltza du eta borobila da. Topatu duenak mesedez, deitu dezala telefono honetara: 943 362632.

**Marrazketa eta margo eskola**
Lasarte-Oriako Bizilagunen Elkarteak antolatzen duen marrazketa eta margo eskolak hasi dira 18:30etik 20:30era. Oraindik plazak badaudenez, izena emateko aukera dago kulturetxeko 2. solairuan arratsaldez 18:00etatik 19:00ak bitartean, astelehenetan, ostiraletan eta larunbat goizetan 09:30etik 11:30era.

**Margo eskolarik ez gabonetan**
Lasarte-Oriako Bizilagunen Elkarteak antolatzen duen marrazketa eta margo eskolak jakinarazi nahi du, abenduaren 25 eta 2an eta urtarrilaren 1, 2 eta 6an ez dela klaserik egongo kulturetxea itxita dagoelako.

**Euskal Inauterien konpartsa**
Euskal Inauterien konpartsako antolatzaileek jakin arazi nahi dute entsaioak hasi direla. Hauek Landaberri BHIko egoitzan egingo dira astearte eta ostegunetan 20:00etatik 21:00etara. Animatu zaitezte parte hartzera!

**Goiegiko bazkaria (Zubikoen despedida)**
Abenduaren 13an Goiegi jatetxean ospatu zen bazkarian, Zubi tabernakoen despedida, soberan geratu zen diruarekin loteria erosi dela jakinarazi nahi dute antolatzaileek. Bi loteria mota erosi dira: abenduaren 18rako, ONCEko zozketarako 18.738 zenbakia (9 euro) eta Gabonetako loteria, 22rako, 42.089 zenbakiarekin (360 euro).

**Bertso-porraren emaitza**
Ez zen erraza Bertsolari Txapelketa Nagusiko Finaleko bertsolariak asmatzea. Berez ez zuen inork sailkapen osoa asmatu, baina bi pertsonek puntutan pare geratu ziren. 20na punturekin, Donetz Iradik eta Olatz Urdanpilletak irabazi zuten Bertso-Eskolak antolatutako bertso-porra. Zorionak biei!

**Eguberrietako egutegia**
2009rako onartuta dagoen egutegiaren arabera, Lasarte-Oriako udal kirol instalazioak itxita egongo dira abenduaren 24an, 25ean, 31n eta urtarrilaren 1ean. Errege Eguneko ospakizunen baitan, urtarrilaren 5ean kirol instalazioak irekita egongo dira 7:00etatik 12:30era, eta urtarrilaren 6an itxita egongo dira egun osoan.

**Ostadarreko bulegoa itxia**
Ostadar Kirol fundazioak jakin arazten du bulegoa itxita egongo dela Gabon bezperatik, abenduaren 24tik urtarrilaren 10a arte.

**Ostadarreko otarraren zozketa**
Urtero bezala, Ostadarrek otar bat zozketatuko du bazkide guztien artean.
Beraz, guztiak adi abenduaren 23an 20:00etan, Ostadarreko atean eta www.ostadarkf.org helbidean zenbaki irabazlea jarriko baitu elkarteak.

**Ostadar bazkide kanpaina**
Ostadar Kirol Fundazioak 2010. urteko bazkide kanpainari ekin dio. Bazkide txartela egin nahi duenak elkarteak Geltoki Kalea 25 zenbakian duen egoitzan egin beharko du, astelehenetik ostiralera arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara. Bazkide egiteko azken eguna abenduak 23a izango dela ohartarazten du kirol elkarteak.










# Olentzerori emateko gutuna




Lasarte-Oriako Udalak Eguberri
eta Urteberri on opa dizue!


HARATEGIA
BALERDI
URDAITEGIA
Nagusia 36, behea 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 37 04 46
AHORRAMAS
ONDO PASA GABON JAIETAN !
HARATEGIA BALERDI URDAITEGIA
Geltoki Kalea 15 behea
Lasarte-Oria
Tel.: 943 376585
Nagusia 50, behea
Lasarte-Oria
Tel.: 943 36 36 11


EGUBERRI JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU !
Erabateko gutizia aurkituko duzue
gure produktuetan!
Bila bazabiltza, hementxe duzu
gure BETIKO kafea
BETIKO
Kafea
OGI BERRI
GURE
KALITATEA
DASTATU
Pablo Mutiozabal 3 • Tel.: 943 364121 • 20160 LASARTE-ORIA


aldaz
hortz klinika
Aldaz hortz klinikak
jai zoriontsuak eta
Urteberri on
2010
opa dizue